



OHIKO BATZAR OROKORRERAKO TXOSTENA

2024ko ekaina

AURKEZPENA

Kaixo, bazkide

Ikasturte amaierarekin batera Ohiko Batzar Nagusirako deialdia luzatzen dizut. Oraingoan ezinbestekoak ditugun baliabide ekonomikoaren balantzea egitea egokitu zaigu. Urteko kontuen azterketarekin batera, gure Kooperatiban egingo diren inbertsioen berri eta jantokiko antolaketa berriaz ere arituko gara.

Gai mardulak badirudite ere, ezinbestekoak ditugu datozkigun erronkei behar bezala erantzun diezaiegun. Izan ere, matrikulazioaren gora-beherek etorkizun hurbilean izan dezaketen ondorioak aurreikusi beharra daukagu.

Bestalde, Ekainaren 22an Ikastolen Elkarte osatzen dugun 114 Ikastolok gure VII. Batzarra ospatuko dugu Iruñean. Bertan, etorkizunean nahi ditugun Ikastolak zirriborratuko ditugu, datozen urteotan izango ditugun erronkei aurre egiteko hausnarketa partekatua eta gure bidea gidatuko diguten helburuen zehaztapenaren bidez. Orain dela bi urte “BIHAR” prozesuan eztabaidatutako “endekalogo” oinarria izanik, Ikastolen Elkar-teak NONDIK GATOZ, NON GAUDE eta NORA GOAZ txostenak landu ditu eta txosten hauetatik aterako dira Iruñeako Batzarrean bozkatuko diren erabakiak.

Etorkizun horren eraikuntzan, auzolanean, gure aletxoak jartzen jarraitu beharko dugu; ikasturtean zehar egin diren ekimen ezberdinekin egin dugun bezala, Arabako ikastolok, Olarizun, Oiongo San Bizente ikastolaren alde izango dugun hitzordua azpimarratu nahi dut. Araba Euskaraz. Gure Ikastola, Arabako gainontzeko ikastolekin batera, jaiaren antolakuntzaz arduratu da eta behar beharrezkoa dugu laguntzera ahalik eta ikastolakide gehien hurbiltzea. Anima zaitez!

*Aiara Murga Egia
Ikastolako lehendakaria*

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
2023 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA.....	3
2023 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA	4
2024 EKITALDIRAKO AURREKONTUA.....	6
2023ko EGOERA EKONOMIKOAREN HAUSNARKETA	8
2024ko AURREKONTUAZ	10
BATZAR OROKORRERAKO DEIALDIA	11
BOZKA DELEGATUA.....	12

2023 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA

	2022	2023
A) ERAGIKETA JARRAITUAK		
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.371.823	1.397.614
a) Salmentak.....	1.371.823	1.397.614
4. Hornikuntzak.....	(412.103)	(453.804)
a) Salgaien kontsumoa.....	(63.983)	(80.425)
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa.....	(164.667)	(159.309)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak.....	(183.453)	(214.070)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak.....	3.742.626	3.920.681
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk.....	82.613	63.370
b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak.....	3.660.013	3.857.311
6. Pertsonal gastuak	(4.167.246)	(4.290.549)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	(3.205.237)	(3.282.740)
b) Karga sozialak.....	(962.009)	(1.007.809)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(281.422)	(310.320)
a) Kanpoko zerbitzuak.....	(251.384)	(276.539)
b) Tributuetak.....	(1.939)	(386)
c) Eragiketa-komertzialeko galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak.....	249	(186)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak.....	(28.348)	(33.209)
8. Ibilgetuaren amortizazioa.....	(250.946)	(242.850)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena.....	19.458	19.458
13. Bestelako emaitzak.....	9.950	5.726
A.1) USTIAPENeko EMAITZA.....	32.140	45.956
14. Sarrera finantzarioak.....	842	1.250
b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak.....	842	1.250
b1) Taldeko enpresa eta elkartuetakoak.....	-	3
b2) Hirugarren enpresetakoak.....	842	1.247
15. Gastu finantzarioak.....	(11.709)	(41.977)
b) Hirugarrenen zorrenak.....	(11.709)	(41.977)
16. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak.....	(2.014)	(0)
a) Narriadura eta galerak.....	(2.014)	(0)
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA.....	(12.881)	(40.727)
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA.....	19.259	5.229
19. Mozkinen gaineko zerga.....	-	(963)
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA.....	19.259	4.266
A.5) EKITALDIKO EMAITZA.....	19.259	4.266

2023 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA

AKTIBOA

	euroak BALANTZEA 2022	euroak BALANTZEA 2023
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	3.932.027	3.718.207
II. Ibilgetu materiala	3.752.542	3.549.567
1. Lurrak eta eraikuntzak	2.906.023	2.765.027
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	846.519	784.540
IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	112.737	125.382
1. Ondare tresnak	101.929	114.574
3. Zorra adierazten duten baloreak	10.808	10.808
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	66.748	43.258
1. Ondare-tresnak	1.550	1.550
2. Hirugarrenetikiko hartzekoak	64.598	41.108
5. Bestelako aktibo finantzarioak	600	600
B. AKTIBO KORRONTEA	680.319	619.250
II. Izakinak	18.245	20.902
1. Merkataritzakoak	10.730	13.935
2. Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak	7.515	6.967
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	228.600	85.603
6. Administrazio publikoekiko bestelako hartzekoak	228.600	85.603
V. Epe laburreko inbertsio finantzarioak	73.735	197.840
5. Bestelako aktibo finantzarioak	73.735	197.840
VI. Epe laburreko periodifikatzeak	14.694	16.749
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	345.045	298.156
1. Diruzaintza	345.045	298.156
AKTIBOA GUZTIRA	4.612.346	4.337.457

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

	euroak BALANTZEA 2022	euroak BALANTZEA 2023
A. ONDARE GARBIA	3.443.301	3.305.131
A.1 Funts propioak	1.430.730	1.437.033
I. Kapitala	142.299	144.336
1. Kapital eskrituratua	142.299	144.336
II. Erreserbak	1.364.384	1.364.384
3. Estatutuetakoko erreserbak	121.500	121.500
4. Beste erreserbak	1.242.884	1.242.884
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	(95.212)	(75.953)
2. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	(95.212)	(75.953)
V. Kooperatibaren soberakina (negatibo edo positiboa)	19.259	4.266
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	2.012.571	1.868.098
B. PASIBO EZ-KORRONTEA	626.973	566.621
I. Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko bestelako xedeetarako ekarpena (COFIP)	-	-
III. Epe luzeko hornidurak	173.934	191.291
1. Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	173.934	191.291
IV. Epe luzerako zorrak	453.039	375.330
2. Kreditu erakundeekiko zorrak	453.039	375.330
C. PASIBO KORRONTEA	542.072	465.705
V. Epe laburreko zorrak	94.883	82.976
2. Kreditu erakundeekiko zorrak	94.879	82.972
5. Epe laburreko bestelako partaidetzak	4	4
VI. Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkideekiko epe laburreko zorrak	12.184	12.505
1. Taldeko enpresekiko zorrak	12.184	12.505
VII. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	435.005	329.992
1. Hornitzaileak	28.372	30.525
3. Hainbat hartzekodun	89.498	8.639
4. Pertsonala	34.589	19.706
6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	282.546	271.122
VIII. Epe laburreko periodifikatzeak		40.232
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	4.612.346	4.337.457

2024 EKITALDIRAKO AURREKONTUA

GASTUAK	euroak AURREKONTUA	euroak AURREKONTUA
	2023	2024
LANSARIAK	4.202.891	4.552.010
Irakasleoa	2.491.974	2.685.028
Administrazioa+IKT	162.611	169.035
Jantokia+garraioa	201.511	222.399
Mantentze-lanak-garbiketa	138.665	147.852
Ordezkapenak	195.695	243.636
Aurrejubilazioak-Liberatuak	70.397	48.205
Enpresaren kargurako G. Segurantza	881.621	1.006.399
Gastu Sozialak	59.916	29.454
PRESTAKUNTZA	26.500	21.200
FUNTZIONAMENDUA	189.143	189.345
MANTENTZE-LANAK	204.665	157.366
JANTOKIA	126.019	124.218
KOMUNIKAZIOA	21.900	21.700
GARRAIOA	91.575	89.592
ELKARTEAK	11.847	11.858
FINANTZ GASTUAK	13.589	30.623
IKASTOLAKO BEKAK	33.994	26.627
BESTELAKO GASTUAK / EKE	103.685	126.041
URTEKO AMORTIZAZIOA	253.9646	256.460
GASTUAK GUZTIRA	5.279.754	5.607.041

SARRERAK

	euroak AURREKONTUA 2023	euroak AURREKONTUA 2024
EUSKO JAURLARITZA	3.693.242	4.044.799
Hezkuntz Kontzertuak	3.444.222	3.826.178
Inbertsioak	32.023	23.490
Proiektuak- 0-3 urte	158.335	106.264
Bestelako kontzeptuak	58.664	88.886
LAUDIO UDALA	55.984	64.257
KUOTAK	1.273.457	1.278.005
Ikastola	548.613	545.108
Jantokia	400.999	409.855
Garraioa	25.494	25.158
Bestelakoak	12.600	13.269
Aparteko kuota	79.080	78.620
Inbertsio kuota	170.893	170.419
GKE/Gelaz Kanpoko Ekintzak	35.778	35.576
BESTELAKO SARRERAK	127.056	56.775
KAPITAL DIRULAGUNTZAK	114.584	117.083
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK	52.551	57.049
SARRERAK GUZTIRA	5.316.875	5.617.968
2023 EKITALDIAN SORTUKO DIREN ERREKURTSOAK	37.121	10.928

2023 EKITALDIAZ HAUSNARKETA

Aurkeztutako balantze eta emaitza kontua Ikastolatik kanpoko ikuskaritza enpresa batek egindako auditoretzan jasota daude eta bazkide guztiek txosten osoa kontsulta dezakete Ikastolako idazkaritzan.

Urtean zehar aurrekontuetan jasotako jarraibideak aplikatzen dira, eta egunerokoan gerta daitezkeen gorabeheren arabera egokit-

zapanak bideratzen dira. Kontuen ikuskaritza egitean auditoreek proposatutako doikuntza desberdinak kontutan hartuta daude aurkezten diren urteko kontu hauetan.

Ikastolaren egoera ekonomikoari buruzko hausnarketa 2023 ekitaldian jasotako gastu eta sarreren azterketa kontutan hartuta abiaraziko da.

GASTUAK


Gastu partida orokorrean aurreikusitakoa baino altuagoa izan da.

SOLDATAK

2023an soldata partidaren zenbatekoa aurrekontuan aurreikusitakoa baino altuagoa izan da. Diferentzia hau batez ere ondorengo arrazoiengatik sortu da. Alde batetik, urtean emandako soldata igoerak jaso gabe egon dira. Bestetik, ordezkapenetan egondako gastua aurreikusitakoa baino altuagoa izan da. Honetaz gain, Gizarte Segurantzaren gastu partidan ere igoera izan dugu hurrengo arrazoiengatik: soldata igoerak ekarritako Gizarte Segurantzaren igoera, kontratu motzen kotizazioen garestitzea, Gizarte Segurantzako kotizazioen garestitzea eta errelebo kontratuek daukaten gainkotizazioaren kostua.

BESTE GASTUAK

Besteak beste, material deseginkorrean eta maileguen interesetan. Azken hauek, merkatuaren menpe daude eta azken urtean Euriborrak izandako igoeraren ondorioz, maileguen interesetan igoera nabaria izan dugu. Aipatzekoa da ere, 2023ko urrian mailegu baten ordainketarekin amaitu dugula.



JANTOKIA

Aipatzekoa da, jantokiko lehengaiaren kostua 2022 ikasturtearekin alderatuta, eta 2023. urteko inflazioa kontuan izanda, mantendu dugula eta emaitza hau sukaldean gastuaren kontrolerako hartutako ekintzen ondorio dela.

SARRERAK


DIRU-LAGUNTZAK

Diru laguntzen kasuan, aurreikusitakoa baino gutxiago jaso dugu. Hasteko, inbertsioetarako jasotzen dugun diru laguntza bat amaitu egin delako. Bestetik, ikuskaritzan agindutako doikuntzak direla eta Eusko Jaurlaritzaren kontuan genuen akats historiko baten erdia kitatu dugu.

Bestalde, 0-3 diru laguntzan aurreikusitako baino diru gehiago jaso dugu, 0 eta 1 urtetan ume gehiago matrikulatu egin ditugulako eta Laudio Udaletik jasotako diru laguntza hurrengo 4 urteetarako berriztu dugu eta jasotako zenbatekoaren egunerapena ere egon da.

KUOTAK

Kuotetan izan dugun igoera izan da diru sarreren desbideraketa positiboaren arrazoi nagusia eta kuoten barruan, jantokiko kuoten



igoera izan da.

IKASTOLAKO JAIK

Ikastolako jaiak gastu partida nahiko handia duen arren, sarrera partidan zenbateko altuagoa du, beraz 2023. urtean diru sarreren ekarpena ekarri digu.

EMAITZA

2023 urterako aurreikusitako emaitza positiboa baino bajuagoa lortu dugu, baina hala ere, positibo mantentzea lortu dugu.

Emaitza hau, aurreko ekitaldietan izandako emaitza negatiboak konpentsatzeko erabiliko da.

MAILEGU ETA INBERTSIOEN INFORMAZIOA

Mailegu eta inbertsioei dagokienez 2023an ondorengoak jaso dira:

MAILEGUEN AMORTIZAZIOA:	94.620,59€
MAILEGUEN INTERESAK:	24.900,70€
INBERTSIOAK:	39.875,31€

2024ko AURREKONTUAZ

2024 urteko aurrekontuen oinarrian aurreko urtekoak daude, haien jarraipen bat dira.

GASTUAK

SOLDATAK

Soldatetan balizko igoera bat aplikatu da eta honekin lotuta Gizarte Segurantzako partidaren igoera ere. Honetaz gain, ordezkapenen partidaren zenbatekoa mantendu da.

2022an izandako lan erreformaren ondorioz indemnizazioetarako partidarekin jarraitzen dugu eta baita jubilazio aurreratu hartu nahi dutenentzako balizko kalte ordainaren gastua sortu dugu.

Bestalde, 2024 urterako jarraipen sariak espero ditugu eta horietatik 4 ez dozenteenak izango dira. Dozenteen jarraipen sariak Eusko Jaurlaritzak ordaintzen ditu, baina ez dozenteenak ez ditu finantzatzen.

GARRAIOA

2024/2025 ikasturtean ez da Balmasedako ikaslerik egongo beraz ez dugu ibilbide horren garraioaren gasturik izango.

SARRERAK

KUOTAK

Hezkuntzako lege berriaren ondorioz, 2 urteko mailan matrikulatuko ditugun ume kopurua Hezkuntzak zehaztuko duela dirudi. 2024/2025 ikasturterako 2 gela eta baliabide gehigarria izateko matrikula kopurua izan du-

gun arren, izandakoa baino gutxiago esleitu digute. Momentu honetan, helegite prozesuan murgilduta gaude eta beraz ezjakintasunez ikusten dugu ikasturte berria nola hasiko dugun. Honen ondorioz, matrikula jeitsiera badugu, etorkizuneko kuotetan nabarituko dugu. Bestalde, Batxilergoko etapan ere, 2024/2025 ikasturtean gela bat galduko dugu 1. mailan eta horrek itunetan ere jeitsiera ekarriko digu.

DIRU-LAGUNTZAK

2024/2025 ikasturterako Batxilergo 1. mailan ez da 3.gela izateko kopurura heldu eta horren ondorioz, diru laguntzan gorabeherak egon daitezke.

INBERTSIOAK eta MAILEGUAK

Inbertsioetarako diru laguntza baliatuta eta beharrianak aztertuta, Ikastolan 2024ko udan zehar inbertsioak egingo dira. Inbertsio horiei aurre egiteko mailegu bat eskatuko dugu. Aurreikusten diren inbertsioak hurrengoak dira: frontoiaren insonorizazioa, kanpo espazioen moldaketa egurrezko egiturak erabiliz, LHko jolastokiko konponketa eta 4-5 urtekoen jantokiko atea handitu.

Bestalde, eguzki plakak jarriko ditugu goiko eraikineko teilatuan, energia modu berrietagarrían lortzeko. Suposatu duen gastuaren %75a finantzatua izan da eta beste zatia ikastolak dituen baliabideekin ordainduko da. Gastua ere aztertuta, elektrizitatearen gastuan murrizketa aurreikusten dugu hurrengo urteei begira.

OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Laudio Ikastolako Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibako bazkide guztiak 2024ko ekainaren 19an ospatuko den Ohiko Batzar Nagusira deitzen ditu.

Batzarra kooperatibaren egoitza sozialean burutuko da, Laudio herriko Motxotekale kaleko 16.an, arratsaldeko 17:30ean lehenengo deialdian eta 18:00etan bigarreanean.

Asanbladak ondorengo gai-zerrenda izango du aztergai:

- 1. Aurreko Batzarraren aktaren onarpen txostenaren irakurketa.*
- 2. Bazkide bi izendatu Batzarraren akta onartu dezaten.*
- 3. Artezkaritza Kontseiluaren eta Zaintza Batzordearen berriztapena.*
- 4. 2023 ekitaldiaren urteko kontuen eta emaitzaren aplikazioaren aurkezpena, eta hala badagokio, onarpena*
- 5. 2024 ekitaldirako Laudio Ikastolaren egoera ekonomikoaren azterketa eta aurrekontuen aurkezpena*
- 6. Inbertsioak*
- 7. Jantokiko antolaketa*
- 8. Eskari-galderak.*

Ohar metodologikoak:

- a) Batzar egunean 2. deialdira, 18:00etakora, azaltzea gomendatzen da.*
- b) Bazkide guztiak Batzarrean aztergai izango diren gaien inguruko informazioa bilduko duen txostena eskuratuko dute.*
- c) Haurtzaindegi zerbitzua izango dugu.*

OHIKO BATZAR OROKORRERAKO BOTU ESKUORDETUA

*Ikastolako bazkidezen titularrei (familia bakoitzak izendatutakoak) dagokie Batzar Oroko-
rean parte hartzea eta bozkatzea.*

*Artezkaritza Kontseiluak bazkide guztiei, aztergai izango diren puntuen garrantzia ikusi-
rik, Batzar Nagusira azaltzearen garrantzia ekarri nahi die gogora.*

*Kooperatibaren estatutuen 25. artikuluan ezarritakoari jarraituz, **bazkide (titular)
bakoitzak norberarenaz gain beste bi bazkideren ordezkaritza** bete ahal izango du Bat-
zarrean.*

*Kontziliazio familiarerako beharrezkoa izanez gero, bazkide izendatuta ez dagoen familia
berek beste gurasoa egonez gero, zilegi da bera Batzar Nagusirako bazkide titularren ordezka-
ri izendatzea. **Ordezko bazkide honek ezin izango du beste inoren bozka eskuordeurik
etorri.***

*Prozedura hauek bideratzeko, orrialde honen beheko zatian helarazten den akreditazio ere-
dua behar bezala beteta eta izenpeturik aurkeztu beharko da Batzarreko sarreran.*



BOTU ESKUORDETUA

_____ Jaun/Andereak,

_____ ENA zenbakia duenak eta _____

ko auzokidea, Laudio Ikastola Kooperatiba Elkarteko bazkide bezala

_____ bazkideari,

_____ ENA zenbakia duena,

_____ familia bereko kideari,

_____ ENA zenbakia duena, ematen diot nire ordezkaritza 2024ko

ekainaren 19an ospatuko den Ohiko Batzar Nagusirako, ezina baitut agerian berto-
ra azaltzea.

_____n 2024ko ekainaren _____an.

Ordezkaritza onartzen dut,

_____ -k izenpetua
(bazkidea)

_____ -k izenpetua
(ordezkoa)